

Esportazioen prezioak % 1,6 hazi ziren Euskal AEn 2022ko hirugarren hiruhilekoan

Inportazioek % 4,3ko igoera izan zuten prezioetan

2022ko hirugarren hiruhilekoan esportazioen prezioek % 1,6ko igoera izan dute aurreko hiruhilekoaren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Alderaketa 2021eko hiruhileko berarekin egiten badugu, % 6ko gorakada izan da.

Inportazioen prezioek joera bera izan dute: % 4,3 igo dira 2022ko bigarren hiruhilekoaren aldean, eta % 7,0 urte artean.

Prezioen portaera desberdina izan zen ondasun energetikoetan eta ez energetikoetan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Esportazio energetikoen prezioak % 1,9 jaitsi ziren eta ez energetikoenak % 1,7 igo ziren. Urte artean, aldiz, bi ondasun-mota horien prezioek aldakuntza positiboak izan zituzten: % 6,5ekoa energetikoen eta % 5,6koa ez energetikoen.

Inportazioen kasuan, portaera antzekoa izan zen. Produktu energetikoen prezioen indizeak % 2,7 egin zuen atzera hiruhileko arteko tasan, eta ez energetikoenak, berriz, % 6,5 igo. Urte arteko alderaketan, energia-prezioek % 8,6ko hazkundea izan dute eta ez-energetikoenak % 7,2koa.

Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, helburu ekonomikoaren arabera (%). 2022/III

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	1,6	6,0	4,3	7,0
Energiazko gaiak	-1,9	6,5	-2,7	8,6
Energiazkoak ez diren gaiak	1,7	5,6	6,5	7,2
Kontsumo-ondasunak	3,2	6,7	0,6	1,2
Kapital-ondasunak	-4,0	3,5	4,1	5,4
Bitarteko ondasunak	2,8	6,5	4,6	7,8

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean

(t/t4) Behatutako azken hiruhilekoko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren aldean

Data 2022ko Abenduaren 30a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Ondasunen **helburu ekonomikoaren** araberako sailkapenari jarraituz, aurreko hiruhilekoaren aldean, Kontsumo Ondasunen (% 3,2) eta Bitarteko Ondasunen (% 2,8) prezioek gora egin dute, eta Kapital Ondasunek, berriz, % 4,0 egin dute behera. Urte artean, nabarmentzekoa da Kontsumo Ondasunen (% 6,7), Bitarteko Ondasunen (% 6,5) eta Kapital Ondasunen (% 3,5) esportazioen prezioen igoera.

Inportazioetara begira, ikusten da Kontsumo Ondasunen prezioak igo egin direla, bai aurreko hiruhilekoaren aldean (% 0,6), bai urte artekoaren aldean (% 1,2). Gauza bera gertatu da beste bi ondasun-motetan: Bitarteko Ondasunak % 4,6 igo dira aurreko hiruhilekoaren aldean, eta % 7,8 aurreko urtearen aldean. Kapital Ondasunen kasuan, bilakaera bera gertatu da, % 4,1 hazi dira 2022ko bigarren hiruhilekoaren aldean, eta % 5,4 urte artean.

Esportazioak bideratzen diren **eremu ekonomikoak** kontuan hartuta, 2022ko bigarren hiruhilekoaren aldean prezioak igo egin ziren eremu guztietan. 28-EBn % 2,0 igo dira, % 1,6 Eurogunean, % 1,3 ELGAN eta % 3,7 munduko gainerako herrialdeetan. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, joera errepikatu egin da: prezioek igoera handiak izan dituzte eremu ekonomiko guztietan, eta nabarmentzekoak dira ELGA (% 6,4) eta EB-28 (% 6,1); gainerako eremuak ez dira atzean ibili eta, beraz, Euroguneak % 5,4ko hazkunde-tasa izan du, eta munduko gainerakoak % 3,8koa.

Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, arlo ekonomikoen arabera (%). 2022/III

	ESPORTAZIOAK		IMPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	1,6	6,0	4,3	7,0
Euro eremua	1,6	5,4	3,0	8,7
EB-28	2,0	6,1	3,9	7,3
ELGE	1,3	6,4	8,3	5,3
Munduko besteak	3,7	3,8	-4,5	10,9

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean


(t/t4) Behatutako azken hiruhilekoko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren aldean

Data 2022ko Abenduaren 30a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Inportazioei dagokienez, prezioek gora egin dute aurreko hiruhilekoaren aldean, eremu geografiko guztietan. ELGAN nabarmendu dira (% 8,3) eta salbuespena munduko gainerako herrialdeetan izan da (-% 4,5). Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean ere hazkunde-tasa positiboak izan dira eremu ekonomiko guztietan, eta horien artean nabarmentzekoak dira munduko gainerakoa (% 10,9) eta Eurogunea (% 8,7).

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62